



GAZTEDI RUGBY TALDEA

C/ Cuchilleria nº 15, Bajo
CP: 01001 Vitoria-Gasteiz
945 303 045
arabarugbycup@gaztedirugby.eus
www.gaztedirugby.eus

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 26an

Gaztedi Rugby Taldeak (Euskal autonomia Erkidegoko hiriburua den Vitoria-Gasteizko klubak) gonbidapena luzatu nahi du zuen klubak "Araba Rugby Cup" XII. Nazioarteko Txapelketan parte hartu dezan. Vitoria-Gasteizen izango da, 2022ko maiatzaren 6, 7 eta 8ko asteburuan, eta Sub 14, Sub 12, Sub 10 eta Sub 8 mailatarako.

Oraindik ere antolakuntza kontuetan lanean bagabiltza ere, txapelketako puntu batzuk aurrera ditzakegu:

- Txapelketa larunbatean eta igande goizetan izango da, baina txapelketak hala eskatuz gero, aukera egongo da larunbat arratsaldean ere partidaren bat jokatzeko.

- Izena emateko aukerak eta prezioak:

1. **Aukera: 10€** pertsona bakoitzeko. Barne hartzen du:
 - Txapelketan izena ematea.
 - Larunbat eta iganderako anoa.
 - Larunbat eta igandeko hirugarren zatiak.
2. **Aukera: 35€** pertsona bakoitzeko. Barne hartzen du:
 - Txapelketan izena ematea.
 - 8 eta 9rako ostatua (Lurrean, erabilera anitzeko aretoetan: estera eta lo-zakua beharrezkoak).
 - 8 eta 9rako gosariak.
 - 7 eta 8rako afariak.
 - Larunbat eta igandeko anoa.
 - Larunbat eta igandeko hirugarren zatiak.
3. **Aukera: 55€** pertsona bakoitzeko. Barne hartzen du:
 - Txapelketan izena ematea.
 - 8 eta 9rako ostatua (Literetan, logela aniztunetan: lo-zakuak beharrezkoak).
 - 8 eta 9rako gosariak.
 - 7 eta 8rako afariak.
 - Larunbat eta igandeko anoa.
 - Larunbat eta igandeko hirugarren zatiak.

(Izena emateko jende kopuruari dagokionez, jokalaria, entrenatzaileak eta delegatuak kontuan hartuko dira).

- 2. eta 3. aukerak txapelketako tokitik 125 Km-ra baino urrinagotik datozen klubentzako soilik egongo dira erabilgarri.

- Ostatuen esleipena izena emateko hurrenkera mantenduta izango da, eta berauen prestasunaren berri emango da. Antolakuntzarako lagungarri izan dadin, izena ahal bait arinen ematea eskatu nahi genuke, izena emateko epea 2022ko apirilaren 1ean amaituko delarik.

- Ahal bezain talde gehienek parte hartzeko helburuarekin, ostatuari dagokionez, talde bakoitzak pertsona kopuru jakin bat aurkeztu beharko du gehienez:

- Sub14 taldeak (2008-2009) - 18 jokalaria, entrenatzaile 1 eta delegatu 1.
- Sub12 taldeak (2010-2011) - 14 jokalaria, 2 entrenatzaile eta delegatu 1.
- Sub10 taldeak (2012-2013) - 12 jokalaria, 2 entrenatzaile eta delegatu 1.
- Sub 8 taldeak (2014-2015) - 10 jokalaria, 2 entrenatzaile eta delegatu 1.

(Talde bakoitzeko pertsona gehiagok eman behar badu izena, antolatzaileekin hitz egin).



GAZTEDI RUGBY TALDEA

C/ Cuchilleria nº 15, Bajo
CP: 01001 Vitoria-Gasteiz
945 303 045
arabarugbycup@gaztedirugby.eus
www.gaztedirugby.eus

Gauzak horrela, txapelketa honetako lehen ediziotik partekatu nahi izan dugun filosofia zabaldu nahi genuke

Txapelketako saria gure kiroleko baloreak gehien barneratuak dituen taldeari emango zaio, emaitzak kontuan hartu gabe. Guretzat errugbiak duen izaera erakutsi nahi diogu gizarteari; balore etikoen babesa eta kiroltasuna, garaipenaren nahiak eragin ditzakeen jarrera lehiakorren gainetik.

IZENA EMATEKO ORRIA

Parte hartzaile kopurua, aukerak eta prezio totala jarri.

Kategoria	Jokalariak	Entrenatza ile + Delegatua k	Izena emateko prezioa 1 auk. (10€) 2 auk. (35€) 3 auk. (55€)	Prezio totala (€)
Sub-14				
Sub-12				
Sub-10				
Sub-8				

Ostatua erreserbatzeko, eta antolatzaileen kudeaketa lanak errazteko, inprimaki hau bete dezazuen beharko genuke, gero e-mail bidez bidali, diru guztiaren %25eko diru-sartzearen ziurtagiriarekin batera, honako helbide honetara: arabarugbycup@gaztedirugby.eus 2022ko martxoaren 27a baino lehen.

Izena emateko parte hartzaileen kopurua aldatu ahal izango da, betiere antolatzaileekin hitz eginda, eta honek, instalakuntzetako edukiera kontuan hartuta, onartu ahal izango du edo ez.

Klub bakoitzak kategoria bakoitzeko talde bat soilik aurkeztu ahal izango du.

Gainontzeko diru-sartzearen epea 2022ko apirilaren 10ean amaituko da.

Izena emateko ordainketa egiteko, honako hau da kontu zenbakia: ES53 3035 0061 93 0610063464

Izen-ematearekin, ahal bezain kudeaketarik onena egin dezagun dugu helburu, behar guztietara egokitu ahal izateko.

Besterik gabe, aukera baliatuz, adeitasunez,

Moises San Mateos López de Ipiña
Presidente ~~de~~ R.T.

GAZTEDI RUGBY TALDEA



C/ Cuchilleria 15, bajo
01001 Vitoria-Gasteiz
www.gaztedirugby.com